


Abenduaren 10a: Giza Eskubideen Aldarrikapenaren urteurrena

EAEen gazteen erdiek baino gutxiagok (%45) diote pozik daudela Euskadin giza eskubideek duten errespetuarekin.

2008ko [Gazteen argazkiak 12](#) txostenaren arabera, EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %45ek giza eskubideek Euskadin duten errespetuarekin pozik (oso edo nahikoa pozik) daudela diote. Gehiago dira, aldiz, errespetu horrekin ez oso pozik edo batere pozik ez daudela diotenak (%51). Hala ere, gazteen artean dagoen poztasun portzentajea (%45) 30 urte eta gehiagoko biztanleriarena (%39) baino handiagoa da.



Giza eskubideek Euskadin duten errespetuarekiko gazteek adierazitako poztasuna txikiagoa da 2008an (%45), 2006an baino (%52), baina gogoratu behar da 2006an ETArek su-etena indarrean zegoela.

Bestalde, are txikiagoa da (%37) Espainiako Estatuan giza eskubideek duten errespetuarekin oso pozik edo nahikoa pozik dauden EAEko gazteen portzentajea.

Gazteen taldeei erreparatuz, aipa daiteke 18 urtetik beherakoek adierazi dutela Euskadin giza eskubideek duten errespetuarekiko poztasun mailarik altuena. Poztasun hori jaitxi egiten da adinean gora egin ahala.

Araban bizi diren gazteek Bizkaian edo Gipuzkoan bizi direnek baino hein handiagoan adierazi dute pozik daudela giza eskubideen errespetuarekin.

Eta euskal herritar nortasun sentimendu nagusirik ez dutenek poztasun maila handiagoa adierazi dute beraien burua euskal herritartzat bakarrik edo espainiar baino gehiago euskal herritartzat jotzen dutenek baino.